

1. INFORMAZIOAREN TITULARRAREN ETA/EDO ORDEZKARIAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK

NORTASUNA EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAREN ZENBAKIA

ESKANEATUTAKO DOKUMENTUA KARGATZEKO EREMUA

POSTA HELBIDEA

POSTA ELEKTRONIKOA

TELEFONOA *

2. ORDEZKARI BIDEZ JARDUNEZ GERO, ADIERAZI HAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK

NORTASUNA EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAREN ZENBAKIA

ESKANEATUTAKO DOKUMENTUA KARGATZEKO EREMUA

POSTA HELBIDEA

POSTA ELEKTRONIKOA

TELEFONOA *

***Sinbolo honekin markatutako eremua ez da nahitaezkoa eskaera egiteko. Esandako eremu hori zurekin komunikatu ahal izateko eskatzen da, baldin eta egikaritze horrekin lotutako zalantzaren bat sortuko balitzaigu.**

3. BALIATU NAHI DEN ESKUBIDEA

Honako eskubide hauek balia ditzakezu datuekin lotuta: eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, aurkaratzea, tratamendua mugatzea, beste norabait transferitzea, erabaki automatizatu baten xede ez izatea, baimena erretiratzea eta datuen nazioarteko transferentzia batean aplikatzekoak diren bermeei buruzko informazioa jasotzea.

Ez baldin bazaude ziur zer eskubide baliatu nahi duzun, kontsultatu «NOLA BETE FORMULARIOA» atala. Halere, zalantzan baldin bazaude, beti ipini ahalko zara gurekin harremanetan, adierazitako helbidera mezu elektronikoa bat helarazita.

Adierazi zer eskubide baliatu nahi duzun zerrenda zabalgarritik:

Datuak eskuratzeko eskubidea eta, zehazki, adierazi zer nahi duzun ematea honako zerrenda zabalgarri honetatik:

DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAN zurekin lotutako datu pertsonalik tratatzen ari ote garen ala ez.

- Zure datuen jatorria, zuk emanak ez baldin badira.
- Zure datuen tratamenduaren xedeak.
- Datu pertsonal horiek zer kategoriatakoak diren.
- Datu pertsonalak jakinarazi edo jakinaraziko zaizkien hartzaileak edo hartzaile kategoriak, bereziki hirugarren edo nazioarteko erakundeetako hartzaileak.
- Posible izanez gero, zenbat denboran gordeko diren datu pertsonalak, edo, zehaztea posible ez denean, zer irizpide baliatu diren epe hori erabakitzeko.
- DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAK hartzen ote duen erabaki automatizaturik zure datu pertsonalekin -profilak egitea barnean hartuta-.

Datuak zuzentzeko eskubidea eta, zehazki, adierazi zer nahi duzun ematea honako zerrenda zabalgarri honetatik:

- Datu pertsonalak osatzea, osatugabeak izateagatik.
 - Datu pertsonalak eguneratzea edo zuzentzea, indarrean den errealitatearekin bat ez baletoz edo zehaztugabeak balira.

Datuak ezabatzeko eskubidea eta, zehazki, adierazi zer nahi duzun ematea honako zerrenda zabalgarri honetatik:

- Uste duzu datuak dagoeneko ez direla beharrezkoak jaso ziren garaiko beharretarako.
 - Erretiratu egiten duzu datuen tratamendua oinarritzeko baimena, eta tratamendu hori ezin liteke beste legitimazio oinarri batean babestu.
 - Arrakastaz baliatu duzu zure datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea.
 - Datu pertsonalak modu bidegabeen tratatu direnean.
 - Datu pertsonalak ezabatu egin behar direnean, DEBABARRENA ESKUALDE MANKOMUNITATEARI ezarritako lege obligazioen bat betetzeko.

Datuen tratamendua mugatzeko eskubidea eta, zehazki, adierazi zer nahi duzun ematea honako zerrenda zabalgarri honetatik:

- Eskatzen duzu datu pertsonalak zuzentzeko, DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAK haien zehaztasuna egiaztatu dezakeen denbora batean.
 - Tratamendua bidegabea denean eta zuk datu pertsonalak ezabatzeari aurka egiten diozunean, eta, haren tokian, erabilera mugatzeko eskatzen duzunean.
 - DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAK ez dituen behar datu pertsonalak tratamenduaren xedeetarako, baina zuk behar dituzunean erreklamazioak formulatzeko, egiteko edo defendatzeko.
 - Tratamenduaren kontra egin duzu DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAREN legezko arrazoiak zure eskubidearen gainetik daudela egiaztatzen den bitartean

□ **Datuen eramangarritasun eskubidea:** Eskubidea izango duzu eman dizkiguzun datuak jasotzeko, ohiko erabilerako eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean, bai eta datu horiek tratamenduaren beste arduradun bati helarazteko ere, DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAK eragotzi gabe. Era berean, eskubidea izango duzu zuzenean beste tratamenduaren arduradun bati helaraz diezazkiogun eskatzeko, teknikoki posible denean. Dena dela, eskubide hori kasu hauetan bakarrik izango duzu: Zure datu pertsonalak zure baimenean oinarrituta tratatzen ari garenean, edo zurekin sinatutako kontratu bat oinarri hartuta ari garenean eta tratamendu hori bitarteko automatizatuen bidez egitean.

□ **Aurka egiteko eskubidea:** Eskubidea duzu eska diezaguzun datu pertsonalak erabiltzeari uzteko; esaterako, uste duzunean zuri buruz ditugun datu pertsonalak ez direla zuzenak edo iruditzen zaizunean ez ditugula gehiago erabili behar. Zure datuak merkatuteknia helburu zuzenetarako baliatuko bagenitu, eskubidea izango duzu tratamendu horri uko egiteko, baita profilak egiteari ere, merkatuteknia zuzenarekin lotuta dagoen aldetik. Horretarako, eskubide hori balia dezakezu, edo eska dezakezu utz diezaiogula marketin mezuak bidaltzeari, horretarako baja emateko aukera baliatuz edo helarazten dizugun edozer mezu elektronikotan harpidetza ezeztatzeko adieraziz. Aurkaratzeko eskubidea noiznahi baliatu ahalko duzu, zure egoera partikularrarekin lotutako arazoak direla eta, gure “interes legitimoak” lege oinarri gisa dituen edozer datu tratamenduren aurrean, baldin eta iruditzen bazaizu zure eskubideak gurean gainerik daudela. Dena dela, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak jarraitu ahalko du zure datu pertsonalak tratatzen, egiaztatzen bada zure eskubideen gainerik dauden halabeharrezko eskubide legitimoak ditugula, edo Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak zure datuak tratatu beharra daukala erreklamazioak egiteko, gauzatzeko edo defendatzeko.

□ **Zure datu pertsonaletan oinarrituta erabaki automatizatuen objektu ez izateko eskubidea, profilak egitea barne:** Aurka egin diezaiokezu DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAK hartutako erabaki baten mende geratzeari, baldin eta erabaki horren oinarria datuen tratamendu automatizatua bada, giza esku hartzerik gabekoa Alabaina, eskubide hori izateko ezinbestekoa izango da erabakiak zuzen legezko ondorioak eragitea edo bestelako eragin esanguratsuak izatea. Zuri buruzko gisa horretako erabaki bat hartu bada eta horrekin ados ez bazaude, harremanetan jar zaitezke DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEARIN giza esku hartzea berrikus dezagun eskatzeko, zure ikuspuntua azal diezagukezu edo erabaki hori inpugna dezakezu. Edonola ere, ez duzu aurka egiteko eskubiderik izango baldin eta modu automatizatuan hartutako erabakia:

- beharrezkoa bada zurekin dugun kontratua sinatzeko edo gauzatzeko;
- legez baimenduta badago eta zure eskubide eta askatasunak babesteko neurri egokiak badaude; edo
- zure baimen esplizituan oinarritzen bada.

Mesedez, adierazi beharrezkotzat jotzen dituzun zehaztasunak edo zure eskaera modu egokian erantzuteko garrantzitsuak direla uste duzun datu guztiak.

Gogorarazten dizugu formularioa behar bezala beteta helarazi beharko duzula, NANaren kopia erantsita (edo Espainiako lege ordenamenduaren arabera, nortasuna egiaztatzeko baliozkoa den beste agiriren batena). Hirugarren bat ordezkatzuz jardunez, gero, ordezkariaren NANA eta interesatutako pertsonaren ordezkari-tza egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dira.

Erantzuna gehienez 30 eguneko epean jakinaraziko da. Eskaeraren zailtasunagatik edo DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAK eskaera askori erantzun behar izateagatik bi hilabete gehiago luza daiteke.

Adierazi nola jaso nahi duzun erantzuna:

- Posta elektronikoz.
- Posta arruntez.

Data

OHARRA: KOMENIGARRIA LITZATEKE DATA AUTOMATIKOKI JASOTA GERATZEA

BIDALKETA

DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA: Arduraduna: DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA

Xedea: Datu pertsonalen tratamenduari lotuta pertsonak euren eskubideak egikaritzeko egiten dituzten eskubideak kudeatzea DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAREN barruan **Legitimazioa:** Lege obligazioa betetzea:

Hartzaileak: Zure datu pertsonalak ez dira lagako, nola eta ez den beharrezkoa lege obligazioak betetzeko edo zerbitzuari euskarria eman ahal izateko. **Eskubideak:** Datuak eskuratzea, zuzentzea eta ezabatzea, baita beste hainbat eskubide ere. **Informazio gehigarria:** Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio osagarria formulario honen atzealdean eskura dezakezu, edo www.debabarrenea.eus webgunearen pribatutasun atarian.